

**EUSKADIKO BABES ZIBILEKO PLANAREN (LABI) AHOLKU
BATZORDEAREN BILERA / REUNIÓN DEL COMITÉ ASESOR DEL PLAN
DE PROTECCIÓN CIVIL DE EUSKADI (LABI)**

2021-03-05 Vitoria-Gasteiz 05-03-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, jaun andreok arratsaldeon.

Gaur LABI-ren bilera izan dugu eta, ondoren, hartutako erabakien berri emango dugu.

Horrekin batera, pandemiaren lehen urtearen ondorengo hausnarketa bat partekatu dugu.

Urte gogorra izan da, zailtasunez eta oztopoz bete, hemen eta mundu osoan. Pixkanaka, erantzunak adosten eta eskaintzen joan gara.

Lan nekeza dugu aurretik, baina egokia iruditu zaigu azken urte honetako balantze orokor bat egitea eta zuekin partekatzea.

Hasteko, nik esango nuke LABI-n hartutako erabakiak aurkezterakoan kontu handiaz aritu izan garela neurri guztiak hartzeko, beti bezala.

Egun, Bizi Berri III Planaren Transmisio Tentsionatuaren hirugarren mailako agertokian gaude.

Azken hilabete honetako bilakaera positiboa nabarmena izan da. Horrela, 100.000 biztanleko 667 kasuko intzidentzia metatik, gaur 230 kasu baino gutxiagora jaitsi gara.

Egia da, baita ere, beheranzko joera hori moteldu egin dela azken egun hauetan. Bestalde, ZIU-en okupazioak altua izaten jarraitzen du, eta hori lehentasunezko arreta-faktorea da.

Egoerak hobera egin du argi eta garbi, baina etorkizun hurbileko iragarpenean zalantzak dauzkagu oraindik ere.

Euskadi se encuentra en el Escenario Nivel 3 de Transmisión Tensionada del Plan Bizi Berri III.

Hemos pasado de una Incidencia Acumulada de 667 casos por 100.000 habitantes, a menos de 230 hoy. La situación ha mejorado claramente, pero la predicción sigue siendo incierta.

Cuatro factores inciden en ello:

- el riesgo de las nuevas variantes del virus,
- la ralentización de la tendencia descendente,
- los repuntes en algunos Países de nuestro entorno, y
- el efecto negativo de procesos de desescalada prematura y relajación social.

El Plan Bizi Berri III señala que, en procesos de mejoría, las desescaladas deben espaciarse para que la tendencia se consolide.

Une kritikoan gaude eta datozen bi edo hiru asteetako bilakaera erabakigarria izango da.

Oraindik zuhurtasun osoa mantentzeko ueña bizi dugu.

Testuinguru horretan, indarrean dauden neurri murriztaile nagusiak lasaitzeko baldintzak betetzen ez direla uste dugu LABI-ren baitan.

Adostu dugu zuhurrena neurriak luzatzea dela, egoera epidemiologiko egonkorragoa eta ziurtasun handiagoa lortu arte.

Batzorde Teknikoaren irizpenarekin eta Bizi Berri III Planaren aurreikuspenekin bat etorriz, LABI-k udal perimetroko itxiera indarrrik gabe uztea erabaki du, datorren asteartetik aurrera.

No es todavía el momento de una desescalada, sino de la máxima cautela. Nos encontramos en un momento crítico y la evolución de las próximas semanas será determinante.

En este contexto, hemos considerado que lo prudente es prolongar las medidas hasta encontrarnos en una situación epidemiológica más estable y de mayor certidumbre.

De acuerdo con el Dictamen de la Comisión Técnica y las previsiones de Bizi Berri III, hemos decidido dejar sin efecto el cierre perimetral municipal, a partir del martes. De esta forma, se permite la movilidad sin ningún tipo de limitación dentro de la Comunidad Autónoma. Con la tasa de incidencia actual y la movilidad intermunicipal que existe de facto, esta medida no resulta necesaria en este momento.

El nuevo Decreto incorporará ajustes y mejoras puntuales en distintos artículos. Así, por ejemplo, se elimina la referencia a la Tasa de Incidencia Acumulada superior a 500 para determinar restricciones por localidad. Se ha tenido en cuenta que, en este momento, no hay prácticamente localidades por encima de este registro (hoy 3 localidades en todo Euskadi).

Además, incorporamos al Decreto una Resolución para regular el desarrollo de las Ofertas Públicas de Empleo o las actividades de tiempo libre.

El nuevo Decreto se publicará el lunes 8 de marzo y entrará en vigor el martes 9 de marzo. Tendrá carácter de texto refundido de todas las medidas actualmente en vigor.

Esan bezala, Dekretuan neurri berriak sartzea erabaki dugu. Horien artean daude Lan Eskaintza Publikoen garapena edo aisialdiko jarduerak errazteko erabakiak.

Dekretu berria martxoaren 8an, astelehenean, argitaratuko da eta martxoaren 9-an indarrean sartuko da.

Bestetik, gaurko bileran urte honetako balantzea partekatu dugu. Urte bateko borroka izan da, mundu osoan ezezaguna den egoera berri baten aurrean.

Ikuspegi autokritiko eta zintzotik begiratuta, aitortu behar dugu aurre egin behar izan diegula prestatu gabeko zailtasun- eta aurreikusezintasun-egoerei.

Egoerak larria izaten jarraitzen du, baina ikasitako ikasgaiek eta emandako erantzunek etorkizunari ikuspegi positiboagoarekin aurre egiteko aukera ematen digute.

Etengabeko oztopoak eta zailtasunak izan ditugu; taldean, auzolanean, lan eginez gainditu behar izan dugunak. Jarrera horri eutsi behar diogu, hilabete asko baititugu pandemiari eta haren ondorioei erantzuteko.

Desde una perspectiva autocrítica y honesta reconocemos que hemos debido hacer frente a circunstancias de dificultad e imprevisibilidad para las que no estábamos preparados.

Ha sido un recorrido con obstáculos y dificultades permanentes que hemos tenido que ir superando trabajando en equipo. Esta es la actitud que debemos mantener porque tenemos muchos meses por delante de respuesta a la pandemia y sus consecuencias.

En este recorrido la prioridad compartida ha sido preservar la salud pública.

Los problemas han sido continuos, dada la excepcionalidad de la situación en todo el mundo. En los primeros meses: escasez de EPI, respiradores, mascarillas y material sanitario. A continuación: necesidad de incrementar la realización de test, cribados y rastreos; la reorganización hospitalaria para responder a la presión asistencial. También la situación de las residencias o el avance en la estrategia de vacunación.

Cada uno de estos problemas ha ido encontrando una solución efectiva en un tiempo razonable.

El Departamento de Salud y Osakidetza han mostrado una gran capacidad de adaptación y capacidad de respuesta con sus propios recursos.

En segundo lugar, hemos destacado la ayuda a los sectores más afectados y necesitados.

El confinamiento domiciliario estricto y la paralización de todas las actividades en la primera ola tuvo una gran repercusión en la vida personal y emocional, familiar y social; también, en la actividad económica y en el empleo.

La colaboración institucional y la estabilidad presupuestaria nos han permitido contar con recursos para poner en marcha medidas de apoyo a las personas y familias más necesitadas.

En tercer lugar, hemos destacado la importancia de la Educación, seriamente afectada por el confinamiento domiciliario, el cierre de los centros y la cancelación de la educación presencial.

El reinicio del curso en septiembre estuvo rodeado de una gran incertidumbre. Se ha logrado, hasta la fecha, garantizar la continuidad de la educación presencial y las aulas abiertas se han mantenido por encima del 98%.

Destaca en cuarto lugar la respuesta económica con una visión de futuro.

Con esta visión y con el objetivo de la reactivación económica, la transformación del tejido productivo y la generación de oportunidades de empleo, se han aprobado el Programa Berpiztu de reactivación y empleo o el proyecto Euskadi Next para optar a los Fondos europeos.

Estos proyectos cuentan con el respaldo del conjunto institucional de Euskadi.

Termino.

El balance del camino realizado es positivo porque la gran mayoría de la población entiende, apoya y cumple las medidas adoptadas en cada momento.

A pesar de la innegable “fatiga pandémica” y del “shock emocional” que vivimos, es encomiable la actitud de rigor y corresponsabilidad que está demostrando la sociedad vasca.

Esta es la actitud que queremos agradecer y alentar tras un año de pandemia. Es la actitud necesaria para superar esta situación, garantizar la salud pública, reactivar la

economía, generar oportunidades de empleo y recuperar el bienestar. En definitiva, preservar la vida y la convivencia, nuestro bien común.

Egindako bidearen balantzea positiboa da, herritar gehienek une bakoitzean hartutako neurriak ulertzen, babesten eta betetzen dituztelako.

Aitortzekoa eta eskertzekoa da euskal gizartearen zorrotasun- eta erantzunkidetasun-jarrera.

Horixe da Euskadin eta mundu osoan urtebeteko pandemiaren ostean sustatu nahi dugun jarrera.

Hau da behar dugun jarrera pandemia gainditzeko, osasun publikoa bermatzeko, ekonomia suspertzeko, enplegu-aukerak sortzeko eta ongizatea berreskuratzeko.

Azken batean, bizitza eta bizikidetzaz zaintzeko eta bermatzeko.

Eskerrik asko eta, ondoren, Osasun sailburua eta biok zuen galderei erantzungo diegu.